

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gure proiektua segurtasuneko produktu bat da, ez da ohiko segurtasun produktu bat. Proiektuaren izena **LockDoor** da.

- **Zer da LockDoor?**


Nori ez zaio gertatu etxetik korrika atera eta etxeko atea giltzarekin itxi dugun edo ez jakitea? Nork eduki du noizbait buru-jan hori egun guztian etxera iritsi arte?

Gure produktuak arazo guzti horiek saihesteko aukera ematen digu. Aplikazio bati esker mugikorretan, ordenagailutan, tablet-etan, smartwatch-etan... ikus dezakezu zure atea irekita, itxita dagoen edo zerbait pasa den. IOS nahiz Android-etan.

Zure etxerako, negoziarako, lantegirako, nahiz garajerako izan daiteke. Zure ingurua segurua izatea da gure helburua, zu eta zure familia lasai bizi ahal izateko. 24 orduz egongo da funtzionatzen produktua, eta arazo bat izanez gero langile bat bidaliko zen alden azkarren.

- **Nola funtzionatzen du LockDoor-ek?**

Zure jabetzan instalazio berezi bat egingo genuen sensore bidezko instalazio bat. Ikusezina izango da pareten barnetik baitoa. Sensoreak konexio inalanbrikoen bidez funtzionatzen du eta aplikaziora bidaltzen du informazio guztia. Kamara bat jartzeko aukera ere baduzu zure jabetzako atea ikusi ahal izateko, alarmaz gain.



**LockDoor**